

Musika

Arto Artian

Musika txikien artasoro zabala

2006 urtetik hona Arto Artian elkarteak Euskal Herriko sortzaile txiki askoren argitalpenak (diskoak, liburuak, fanzineak...) katalogatzen dihardu. Helburu komertzialik gabeko proiektua, musika erabiltzen dute pertsona aberasteko, eboluzionatzeko, hazteko tresna gisa.



LANDER MUÑAGORRI

Argazkia: Dani Blanco

“EZ DAKIGU ZER GAREN, baina bai ordea zer ez garen” hasi da Ibon Rodriguez Eten taldeko partaidea, Arto Artian ekimenari buruz galdetu diogunean, Xabier Erkiziaren esanak bere eginez. Badakite ez direla banatzaile bat, eta ez dutela diskoetxe baten papera betetzen. Eta ez da gutxi, proiektu batek izaera propioa izango badu, lehenik eta behin zer ez den garbi izan behar baitu. Baina erantzun hori ez da nahikoa Arto Artianen nondik norakoak ezagutzeko.

Jakin badakigu ordea Euskal Herri guztian zabaltzen den musikari eta sortzaile txikien artasoro handia dela, ale eta fruitu ugari eskaintzen dituen baratze zabala. “Arto Artian katalogo forma duen elkarte da; eginkizun garrantzitsuen artxibo lana da” zehaztu du Joxe Larrañaga Akauzazte Danok-eko kideak. Baina katalogoa ez dago inongo helburu komertzialen menpe, ez dute musikaren bitartez eguneroko ogia bermatu nahi, eta hori

Joxe Larrañaga eta Ibon Fernandez, Arto Artian ekimeneko kideak, Azkoitiko Matadeixen.

nahiko garbi geratzen da hiru urteko biziaren ondoren saldu duten disko kopurua aipatzen digutenean: 93 erreferentzia bildu dituzte euren gonapean, eta denera 700 ale saldu. Ez die axola, eta alde batetik nahiago dutela ere esan liteke. “Guretzat arazoa baita disko baten aleak agortzea” diosku Rodriguezek. Baina ez jarri aurpegi arrarorik irakurle, ez baitzaude ekimen arrunt baten aurrean, ezta ohiko musika egiten duten musikarien aurrean ere, katalogoan denetarik dagoen arren. Zabaldu burua esperientzia berrietara, eta Arto Artianeko musikarien lana dasta ezazu. Harridura sortuko dizu, seguru egon zaitez horretaz.

Lehenengo kimuak

Ekimen berezi honen lehen haziak erein zituzten laborariak Donostiako Gutural, Azkoitiko Akauzazte eta Berako Gutariko Bat taldeak izan ziren 1990eko hamarkadaren erdi aldean. “Garai haietan, hiru taldeok elkar ezagutzen genuen eta une bertsuetan maketa batzuk atera genituen” oroitu du Larrañagak. “Harreman hartatik gure maketak elkarren artean banatu, eta gure inguruan saltzen genituen. Denborarekin material ugari pilatu genuen, eta 2006an horri guztiari —40ren bat erreferentzia— beste forma bat ematea pentsatu genuen. Jendeak, gainera, hastapenetako maketa haiek eskatzen zizkigun maiz, nahiz eta dagoeneko agortuta geneuzkan”. Orduan, material hori katalogatzea erabaki zuten, bai biltegi fisiko batean, baita webgunean ere (www.artoartian.org). Gainera, lizentzia librean oinarritutako filosofiarekin, hainbat lan saretik doan eskuratzeko aukera jarri zen.

Lehen haziak ereinda zeuden, baina egungo soro zabala sortzeko laborari gehiagoren beharra zegoen. “Hasieratik garbi geneukan gure ideia hau inguruko jendeari zabaltu nahi geniola” dio Larrañagak. Teknologia berriek eskaintzen dituzten erraztasunak medio oharatu ziren, lan asko sortzen ari zirela. “Ez zen 1990eko hamarkadan maketa bat ateratzea bezala” jarraitu du Larrañagak. Eta kaleratzen diren lanen tirada askotan 30 edo 100 kopia

igarotzen ez bada ere, “artxibatu ditugun lan asko katalogatu izan ez bagenitu, ziurrenik ahanzturan galduko ziren”. Bestela ere material horren guztiaren kontsumoa ez da masiboa, eta Arto Artianek ez du arrakasta itzela bermatzen, baina ekimenari esker euskal sortzaile txikiek egiten duten lan isila ezagutzera eman da Euskal Herrian, baita kanpoan ere.

Elkarlanaren garrantzia

Laborariaren lana nekeza izan ohi da, soroa zaindu eta uza bildu nahi bada bederen. Eta artasoro honek ere, alerik emango badu, kide diren musikari eta sortzaileek ezin espero dezakete argitalpenak beste edonork eginda eman-gu dizkienik. “Arto Artianen dauden lanak normalean sortzaileak berak ekoizten ditu” argitu du Larrañagak; “ondoren lan horri denon artean banaketa, promozioa eta bidea markatzen diogu”. Era horretan, sortzaile txikiek egin behar izaten duten lan handi hori errazten du elkarteak. Musikari bakoitzak aukeratzen du zenbateko tirada egin baina, Rodriguezek azaldu duenez, “kontuan hartu behar du ezin dela labur geratu, ezta luze ere”. Uneoro disko bakoitza erabilgarri egon behar baita, hau da, Arto Artianen biltegian kopia kopuru bat egon behar da, eta horregatik suertatzen zaie arazoa disko baten aleak agortzen zaizkienean.

Ezohiko taldeen soroa

“Bakoitzak bere modura uler dezake musika; lan bat zarata besterik ez dela iruditzen bazai-gu ere, horren atzean ideia bat dago, zaratarekin berarekin molestatzera, esaterako” esplikatu du Rodriguezek. “Musika aisialdirako tresna bat bezala saldu izan digute, baina niretzat espresio bide bat da, bizitza sortzeko balio duen erreminta” gehitu du Larrañagak. “Zaratarekin momentu oso bereziak sortzea ere badago”. Baina entzulea ez dago horretara ohituta, ez baitu orokorrean musika mota hori

kontsumitzen. Horregatik jendea, hasieran, musika hau entzuten duenean, galduta sentitzen da. “Esperientzia polita da. Baten bat aspertu egingo da, eta besteren bat harritu; baina nire ustez, halako momenturen bat lor-tzea garrantzitsua da” amaitu du Larrañagak.

Espresio bide bezala ulertuta, musika beste begi batzuekin ikusten dute Arto Artianeko hainbat partaidek. Eta horren adibide bezala har daiteke Xabier Erkiziaren *Spam Defect* lana. Erkiziak bere posta elektronikoan jasotako spamekin itzulpena egin du: publizitatea soinu bihurtu.

Era horretako musika esperimentalak pisua baldin badu ere, pop, rock, hardcore, blues, free-jazz, elektroakustika... Horiek denak egiten dituzten taldeak ere badira Arto Artianeko kide. “Irrati formularen entzuten den musika ere egon daiteke elkartearen barruan, denetik dago” dio Larrañagak. Halere irrati formularen ez da katalogo honetako talderik ageri, baina “bere neurrian arrakasta izan dugula uste dut, nahiz eta ezagunak egin ez garen”.

Zuzenekoetan, askotan rock formaturako prestatutako leketan jo beharrean dira, musika rocka izan ez arren. Kultur etxeetan, erakusketa leketan eta antzekoetan ohikoak omen dira tankera horretako kontzertuak, baina halere berezietarikoa jubilatutako batean jotakoa izango da. Azken aldian gainera, kontzertuen aurretik hitzaldiak eskaintzearen ideiari bueltak ematen hasiak dira, entzuleak ulertzeko ikusten ari dena zertan datzan.

Euskal Herri guztian zabaltzen zaigun artasoro hau aberatsa eta emankorra da fruituei dagokienean. Eskaintza zabala den arren, eskariak ez du era berean gora egiten. Baina, esan dugu, Arto Artian helburu komertzialik ez duen elkarte da, eta salmentari begiratu gabe dihardu. Horregatik musikari txikien lanak zeresan handia izaten jarraituko du artasoro zabalean. ■

Musika esperimentalak pisua badu ere, mota guztietako estiloak sartzen dira Arto Artianen katalogoan



Makalen etorbidea 24, Neguri (48992)
Tel.: 944 912 031 • Getxo, BIZKAIA
www.restaurantejolastoki.com

